

**FUNTZIONAMENDU ARAUAK**  
**Ospitalizazioko Unitatea – HAUR ETA GAZTEENTZAKO PSIKIATRIA**

- AUOko —Santiagooko egoitza— A pabiloiko 7. solairuan dago Haur eta gazteentzako psikiatria unitatea.
- Adingabeentzako unitate espezifiko da, eta Osasun Mentaleko arazo askotarikoak lantzen dira. Unitatearen helburua zera da, pazienteei beren arazoetatik berreskuratzen laguntzea, familikoan edo tutoreen eta asistentziako langileen artean komunikazio ona ezarrita eta kasu bakoitzak eskatzen dituen koordinazio guztiak era indibidualean eginda.
- Gida honetan, unitatearen funtzionamenduaren oinarriko informazioa dago; horregatik, edozein zalantza dela ere, unitateko langileengana jo beharko duzue. Erizainak egunero jarriko dira harremanetan familiarekin, egoeraren eta bilakaeraren berri emateko, goizeko txandan, 12:30etik 15:00etara, gorabeherarik izan ezean. Pazienteak erreferente mediko bat izango du, eta ospitaleratu eta hurrengo egunetan aurkeztuko zaio familiari. Hura ez dagoenean, gainerako talde mediko eta asistentzialak zainduko du.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingresaturik dagoen inorri buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.
- Ospitalea ez da bere gauza pertsonalen erantzule egiten

**UNITATEAREN EZAUGARRIAK**

- Unitatea itxia da, eta gela bikoitzak ditu; horietara sartzeko, unitatearen kanpoaldeko txirrina jo behar da, eta asistentziako langileek ikuskatzen dute.
- Pazienteak mantala eta pijama izango ditu, ospitaleak emanak; haren arropa eta gauzak, berriz, gelako armairuan gordeko dira, eta erizaintzako taldeak kontrolatuko ditu. Komeni da familiakoek edo tutoreek berekin eramatea balioa duten gauzak, dirua eta halakoak. Unitateak kamerak ditu gelen barnean eta kanpoan, pazientearen egoera baloratzeko eta segurtasuna bermatzeko.
- Ingresuan, ondasunak ikuskatuko dira, eta unitaterako egokiak ez diren gauzak kenduko dizkiote. Ondasunak edonoiz ikusi ahal dira ingresuaren aldian.
- Ospitaleko egonaldian, egoera klinikoak uzten badio, unitateko eskolan ematen diren eskoletara joango da, betiere medikuaren egokiespenarekin. Irakasleak eskatutako ikasliburuak eta materiala eraman beharko dira.
- Ospitaleetan indarrean dagoen araudiaren arabera, ezin da erre. Indarreko araudiaren arabera, pazienteek eta/edo bisitariek ezin dute mugikorrik erabili, ezta unitatera elikagaiak eta/edo edariak ekarri ere. Ezin da gailu elektronikorik edo teknologiarik erabili (kontsolak, tabletak, ordenagailuak, etab.). Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalak bere gain hartuko.

**BISITAK ETA DEIAK**

- **Bisitak:** astelehenetik ostiralera 16: 30etik 19: 30era eta larunbat, igande eta jaiegunetan 11: 00etatik 13: 00etara eta 16: 30etik 19: 30era. Bisitak logelan egingo dira, logelakidearekin bat ez datorren ordutegian. Beti izango da pertsona bakarra egun berean, gehienez, 3 pertsona egonaldian zehar. Ospitaleratze-unitateetan sartzeko gomendio orokorre jarraituko zaie. Bisitak plan terapeutikoaren mende daude, medikuak baimentzen ditu eta hainbat pazientek eta familiak ezin dituzte partekatu. Ez da onartzen paziente ohien bisitarik edota 16 urtetik beherakoen sarrerarik.



- **Deitzeko Telefonoa:** Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako 15/1999 Lege Organikoari jarraituz, ez da emango ospitaleratutako pazienteari buruzko informaziorik.
- **Deiak eta/edo bideo-deiak:** medikuek gainbegiratu eta baimendu beharko dituzte.
- **Irteerak:** Psikiatra arduradunak baimenduta eta plan terapeutikoaren arabera

**BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK**

- Ingresuan, harremanetarako kontaktuak eskatuko dizkizute, eta dokumentu bat emango dizute, heziketa zentroarekin koordinatuta egoteko baimena sinatzeko. Epaitegiko batzorde batek bisita egingo dio pazienteari, adingabea izateagatik eta legez hala datorrelako, ingresuaren lehen egunetan.
- **Unitatera sartzeko telefonoa: 945 00 77 13.**
- Pazientearen PSIKIATRA arduradunarekin ZITA eskatzeko, jarri telefonoz harremanetan IDAZKARITZAREKIN, **zenbaki hauetara deituta: 945 00 77 64 / 945 00 77 69**
- Bisitetan, joan daiteke komunera; urologiako eta ELUko solairuen artean daude, igogailuen ondoan.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratze unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurdunak edo lurgabeak.



Merik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



**KAFETEGIA** Ordutegia: 7:30etik 22:00etara

**ERLIJO ZERBITZU KATOLIKOA:** AUOko SANTIAGO kapera, **MISA ORDUTEGIA:** ASTELEHENETIK ASTELEHENERA 20:00etan; **IGANDEAK ETA JAIEGUNAK 11:30ean.** Arrosarioa Eukaristia baino 30 minutu lehenago ospatzen da. Harremanetarako Telefonoa: **618 75 14 15**

**PAZIENTEAK ETA ERABILTZAILAK ATENDITZEKO ZERBITZUA (PEAZ)** beheko solairuan dago. **Ordutegia:** 9:00etatik 14:30era (astelehenetik ostegunera). **Gizarte-langilea:** 3. C solairuan dago. E-mail: [buzonsapu.hospitalsantiago.osakidetza.net](mailto:buzonsapu.hospitalsantiago.osakidetza.net)



**Osakidetza**

ARABAKO  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
ARABA

HAUR ETA GAZTEENTZAKO PSIKIATRIA ZERBITZUA

\_\_\_\_\_ jaun/andrea

\_\_\_\_\_ pazientearen

\_\_\_\_\_ den aldetik.

Unitatearen araudia eta sartzeko baldintzak onartzen eta ulertzen ditu.

Vitoria-Gasteiz, 202\_\_\_\_ ko \_\_\_\_\_ ren \_\_\_\_\_ a

Izenpetua \_\_\_\_\_



**Osakidetza**

ARABAKO  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
ARABA

SERVICIO DE PSIQUIATRÍA INFANTO-JUVENIL

D. /Dña. \_\_\_\_\_

en calidad de \_\_\_\_\_

del paciente \_\_\_\_\_

Acepta y comprende la normativa de la unidad y condiciones del ingreso.

En Vitoria-Gasteiz, a \_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 202\_\_\_\_

Fdo.: \_\_\_\_\_

